

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onespina ematea egurketa aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza aldatzeari

2018ko maiatzaren 14ko ALHAOn (55. zk.) iragarkia argitaratu ondorengo jendaurreko arauzko epean erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onespina ematen zaio egurketa aprobetxamenduak arautzen dituen ordenantza aldatzen duen espedienteari. Horiek horrela, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, ordenantzaren testu osoa argitaratzen da.

Egurketa aprobetxamendua arautzen duen ordenantza

I. XEDAPEN OROKORRAK

Ordenantzaren xedea da arautzea auzo egurketetarako erabiliko diren baso gaien aprobetxamenduak, bai egur sortenak bai "egur hilenak".

Ordenantza Zalduondoko udalerrian aplikatuko da, aprobetxamenduok arautu dituen usadioaren eta martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren, Arabako Lurralde Historikoko mendiak arautzen dituenaren, arabera.

II. DEFINIZIOA

Egurketa edo egur sorta esaten zaie udal mendietan seinalatzen diren baso gaiei, zeinak udalerriko auzotarren egur beharrak estaltzeko diren eta ematen zaizkien horretarako eskubidea izanik etxean produktu hori erregai gisa erabiltzen duten auzotarrei.

Salbuespenez, botatako edo/eta errotik ateratako zuhaitz edo adarrak badaude, hau da, "egur hilak"; auzotarren egur kontsumorako seinalatu ahal izango dira, baldin eta udalak eta Arabako Foru Aldundiko teknikariek hala erabakitzen badute eta auzotarrek eskaera egiten badute.

III. ESKAERA, ESLEIPENA ETA EPEAK

Udalak, kontuan hartuta mendiaren kontserbazio eta birsorkuntza egoera zein den, eskubidea du bereak diren mendietan egurketetarako zuhaitzak seinalatzeko eta haien kopurua eta kokalekua zehazteko, betiere ingurumena babesteko eta hobetzeko irizpideak errespetatuz, basogintzako baliabideek eta kudeaketa eta antolamendu planek uzten badute eta txosten teknikoak egin badira.

Aizkorri-Aratz Parke Naturalaren barruko Zalduondoren mendi publikoan egiten diren seinalatze lanek arreta berezia jarriko dute ekosistemak eta basoko biodibertsitatea kontserbatzeko irizpideetan.

A. EGUR SORTAK:

Interesdunek egur sortetarako eskaerak udal bulegoetan aurkeztu behar dituzte urteko lehenengo bi hiletan, eta orduantxe ordaindu behar dute aprobetxamenduaren tarifa edo, bestela, hura ordaindu dutela frogatzen duen agiria erantsi.

Udalak onartutako eskaerak ezarritakoaren arabera izapidetuko dira, Arabako Foru Aldundiak baimena eman dezan.

Arabako Foru Aldundiak izendatutako teknikariek, udalak izendatutako ordezkarietara batera, egur sorta bakoitza osatuko duten zuhaitzak seinalatu eta zutik markatuko dituzte.

Seinalatze eta markatze lanetan parte hartzen duten auzotarrak auzolanetako partaidetzat hartuko dira ondorio guztietarako.

Parte hartzaileei azaroaren 15a baino lehen banatuko zaizkie egur sortak, zozketa publikoaren bidez.

Udalak eskatzaile guztiei jakinaraziko die zozketa non, noiz eta zer ordutan egingo den.

Sorta bakoitzean seinalatu eta esleitutako zuhaitzak errotik moztu behar dituzte esleipendunek martxoaren 1a baino lehen, geldialdi begetatiboan beti.

Sortak uztailean, abuztuan edo irailean aterako dira. Neguan ere egin daiteke lan hori, baldin eta lurzuaren baldintzak egokiak badira eta Arabako Foru Aldundiko basozainaren edo teknikarieren baimena eskuratu bada.

Nolanahi ere, udaberrian ez da ateratze lanik egingo, orduan hasten baita zuhaitzen izerdia mugitzen, batez ere pagoena, zeinak urratzei oso sentikorrek diren.

B. EGUR HILAK:

Interesdunek topatzen dituzten "egur hilak"; hots, agente naturalek botatako zuhaitzak edo/ eta adarrak, udalari eskatu behar zaizkie apirilean edo maiatzean, hark deialdia egin ondoren. Eskaeran, ahalik eta zehatzen adieraziko da oinak edo adarrak non dauden eta zenbat diren.

Onartutako eskaerak aintzat hartuta, Udaleko ordezkarietara, Arabako Foru Aldundiko mendi teknikarierara batera, eskatu diren "egur hilak" aztertuko dituzte.

Egur kontsumorako seinalatze lan horiek egin aurretik, kontuan hartuko da egur mota horrek basoko biodibertsitatea kontserbatzen duela; izan ere, animalia eta landare espezieak (zuhaitzak barne) babesten ditu eta haietarako elikagaia da, batez ere zuhaitzen mugetan. Eskatzaileari aprobetxamendua zuzenean esleituko zaio.

Behin egiaztatu denean baso kudeaketa jasangarriaren alderdi hori ez dela arriskuan jartzen, eskatzaileari aprobetxamendua esleituko zaio.

Esleitzen den unean ordainduko da aprobetxamenduaren tarifa.

Eskatzaile batek baino gehiagok aprobetxamendu bera eskatuz gero, eskaera lehenengo aurkeztu duenari esleituko zaio.

Egur sortak bezalaxe, "egur hilak" uztailean, abuztuan edo irailean aterako dira.

IV. ONURADUNAK

Ekitaldi bakoitzean, hauek eska ditzakete "egur sortak" edo "egur hilak": "etxe irekia" daukaten pertsona fisikoak, baldin eta Zalduek erroldatuta badaude eta adindunak, adingabe emantzipatuak edo judizialki gaituak badira eta sukalde, tximinia, egur bidezko berokuntza edo antzekoak badituzte.

Udalerriko auzotarren unitate bakoitzak eskaera bakar bat aurkez dezake, egur sortarena zein "egur hilena". Unitatetzat joko da etxebizitza berean bizi den pertsona multzoa.

Aprobetxamendua eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa da eskatzaileak eta haren auzotar unitateko kide guztiek ordainduta edukitzea tasak eta zergak, bai eta udalerrian ezarrita dauden beste zerga eta auzo betebeharrak egunean izatea ere.

Ez badago nahikoa baliabiderik eskaera guztiak onartzeko, ahaleginak egingo dira baliabideen premia handiena duten unitateei lehentasuna emateko. Horretarako, gutxienez irizpide hauek hartuko dira kontuan: unitatearen errenta edo baliabide ekonomikoak, egiaztagiri bidez ziurtatuak; etxebizitzaren bizigarritasunaren kalitatea; egurra benetan erabiltzen den berokuntzarako, hots, ez da nahikoa sutondoa edo tximinia edukitzea.

V. BETEBEHARRAK

Aprobetxamendu mota hau eskuratu ahal izateko, derrigorrezkoa da eskatzaileak eta haren auzotar unitateko kide guztiek ordainduta edukitzea tasak eta zergak, bai eta udalerrian ezarrita dauden beste zerga eta auzo betebeharrak egunean izatea ere.

Esleipendunak seinalatu diren eta esleitu zaizkion gai guztiak atera behar ditu, ezarritako epean.

Egur sortak eta "egur hilak" norberaren kontsumorako izan behar dira, eta debekatuta dago haiek denak zein parte bat trukitzea, saltzea edo lagatzea.

Seinalatutako guztia ebakiko da ipurditik, salbu egurketak banatzeko balio duten zuhaitzak eta sorta bakoitzaren lehenengoa eta azkenekoa (ebakien, zenbakien edo/eta korapiloz lotutako plastikoen bidez markatuak), betiere motzondoak luraren arrasean utzita.

Esleipendunek Arabako Foru Aldundiko teknikarien aginduak bete behar dituzte uneoro, mozketa, ateratze, ipurditik ebakitze eta bestelako lan osagarrien (garbiketa, etab.) prozedurari dagokionez.

Zuhaitzak mozteko unean eta haiek atera edo garraiatzeko unean, ez zaie kalterik eragingo gainerako arbolei, ezta inguruneari eta egurra ateratzeko bideei ere.

VI. SARBIDEAK ETA IBILGAILUEN ZIRKULAZIOA

Seinalatutako gunera iristeko, dela zuhaitzak ateratzeko edo ipurditik ebakitzeko, lehendik dauden bideak erabiliko dira edo, bestela, Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko arduradunek horretarako adierazitakoak.

Gurpil markarik utziko ez den egunetan joango da gunera; ez da markarik utzi behar ez bide nagusian ez egurra ateratzeko bideetan, egurketa lotearen kokalekuraino.

Bideak garbi utziko dira, adarrik gabe, ibilgailuak sartu ahal izateko.

VII. ARAU HAUSTEAK

Kasuan kasuko basogintza urtean ez bada egurra ateratzen eta ez badago hori justifikatzen duen arrazoirik, egurketa aprobetxamenduak eskuratzeko eskubidea galduko da urtebetetik bost urtera doan aldirako.

Zehapena indarrean dagoen bitartean, egur sortak edo "egur hilak" eskatzeko eskubidea berreskura daiteke, baldin eta hura galtzea eragin zuen egoera zuzentzen bada.

Ordenantza honetan jasotako betebeharrak ez betetzea arau haustetzat joko da.

Gainerako arau hausteen kalifikazioari eta aplikatu beharreko zehapenei dagokienez, 11/2007 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko mendiak arautzen dituenak, VII. tituluko 69. eta 70. artikuluetan xedatutakoa beteko da. Hona hemen artikuluko horiek diotena:

69. artikulua. Arau haustek

1. Hauek izango dira arau-hauste arinak: Egurrak edo egurketa aprobetxamenduak mozte edo horietaz jabetzea, mozteko baimenik edo aprobetxamendu lizentziarik izan gabe edo ordenantza honetan zein emandako baimen edo lizentzietan ezarri diren baldintzak bete gabe.

2. Arau hauste arinak behin eta berriro egitea arau hauste larri izango da.

3. Arau hauste larriak behin eta berriro egitea oso arau hauste larri izango da.

70. artikulua. Zehapenak eta isunen taula

1. Aurreko artikuluko aipatzen dituen arau haustek isun hauen bidez zehatuko dira:

Arau hauste arinak: 30 eta 250 euro bitarteko isuna.

Arau hauste larriak: 251 eta 1.000 euro bitarteko isuna.

Oso arau hauste larriak: 1.001 eta 10.000 euro bitarteko isuna.

Foru Aldundiak isunen zenbatekoa aldizka eguneratuko du, bilakaera ekonomikoaren proportzioan.

2. Isunen zenbatekoa zehazteko, kontzeptu hauek hartuko dira kontuan: erantzulearen inguruabarrak, intenzionalitatea, partaidetza eta eskuratutako onura, garrantzi soziala, mendi, lurzoru eta uraren ekologia baldintzen gaineko eragina, sortutako kalte edo narriaduraren itzulezintasuna, eta foru arau honek zehatzen dituen arau hausteak behin eta berriro egitea.

Zehapenaren edo isunaren zenbatekoa murriztu ahal izango da, arau hausleak arau hausteak sortu duen egoera zuzentzen badu errekerimenduan adierazten den epearen barruan.

3. Isunarekin batera, zehapen osagarri hauek aplikatu ahal izango dira:

a) Arau haustea eragin duten jarduerak gauzatzeko lizentzia baliogabetzea edo titulua iraungitzea, eta, hala dagokionean, arau hausleak eskuratu dituen zerga eta finantza onurak galtzea.

b) Eskuratutako baso produktuak eta, hala dagokionean, arau haustea egitean erabili diren tresnak eta baliabideak konfiskatzea.

4. Hurrengo artikulua arabera egokia bada, zehapen ebazpenean kalte-galeren zenbatekoa adierazteaz gain, jabetza berreskuratzeko eta ingurunea lehengoratzeko aginduko da, aurretik egin ezean, edo komenigarriagozat jotzen bada, hileko 30 eta 150 euro bitarteko hertsapen isunak ezartzeko, zehapena ekarri duten aprobeixamenduak eten arte eguneratu ahal izango direnak.

5. Zehapen ebazpenak isuna ezarri beharrenean, mendiaren onurarako jarduerak egitea proposatu ahal izango du, arau-hauslearen zirkunstantzia pertsonalek, gertaeraren izaerak eta sortutako kaltea konpontzeko egin den ahaleginak horrela gomendatzen dutenean. Ordezpen hori eraginkorra izan dadin, zehatua ados egon beharko da zehapen ebazpenarekin eta proposatu diren ordeztzeko jarduerekin. Jarduera horiek burutzea eta kalte-galera, horiek egotekotan, ordaintzea baliokideak izango dira.

6. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezartzen diren zehapenak hiru urteren buruan preskribatuko dira; arau-hauste larriak edo arinak egiteagatik ezartzen direnak, aldiz, bi urteren buruan eta urtebetera, hurrenez hurren.

Zehapenen preskripzio epea zehapena jartzen duen ebazpena irmo bihurtu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da kontatzen.

Interesduna jakinaren gainean egonik, betearazpen prozedura hasteak preskripzioa etengo du. Zehapena ezarri zaionari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik prozedura eten denetik bi hilabete igaro ondoko egunetik hasita, preskripzio epea kontatzen hasiko da berriz.

VIII. KUOTA

Arabako Foru Aldundiak ezarritako gutxienekoak oinarritzat hartuta, hauek izango dira egur sorten eta "egur hilen" prezioak:

- Egur sortak: 12 euro loteko.
- Egur hilak: 0,01 euro/kg.
- Egur hilak egurketa aprobeixamenduen osagarri: 0,002 euro/kg.
- Egur hilak, mendia zaintzen eta berritzen laguntzen dutenak: 0,002 euro/kg.

Udalbatzak du tasa hauek eguneratzeko eskumena.

Udalak egur sortetarako dirulaguntzak eman ditzake, mendia kontserbatzen eta berritzen lagungarriak izan badira, ingurumena babesteko eta hobetzeko irizpideen barruan.

IX. AZKEN XEDAPENAK

A. Ordenantza hau indarrean egongo da, harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte edo lege berriren batek hala eskatu arte.

B. Ordenantza honetan jaso ez diren alderdi guztietarako, 11/2007 Foru Arauari, Arabako Lurralde Historikoko mendiak arautzen dituenari, lotuko gatzaizkio.

Zalduondo, 2018ko ekainaren 15a

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE